




# ZE BARRI?



URLATIK • LANDETARA

13. Alea 1997ko Urria



## BUKATU DA AUTOPISTARI ALEGAZIOAK EGITEKO EPEA

- AUTOPISTARI EGINDAKO ALEGAZIOAK
- TXONDORGINTZA BERRESKURATZEN
- ERDIGUNERAKO PROIEKTU BERRIA

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

Eskoriatza

Udaletxea 714407  
 Udal Bulegoak 714532  
 Udaltzaingoa 714407  
 Euskaltegia 792168  
 Kultur-Etxea 714688  
 Gizarte-Laguntzailea 714688  
 Kiroletxea 715328  
 Liburutegia 714688  
 Luis Eceiza 714938  
 Jose Arana-Almen Ikastola 714486  
 Almen 714964  
 Museo-Eskola 714688  
 Ze Barri 714077  
 Talde Antimilitarista 715028  
 Irakasle Eskola 714157  
 Osakidetza 714452  
 Telesko 714917  
 Taxia 714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300  
 Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76  
 Ertzaintza (Arrasate) 797199  
 Suhiltzaileak (Oñati) 792800  
 Renfe (Zumarraga) 721515  
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030  
 Pesa (Arrasate) 791419  
 Larrialdiak (Arrasate) 771043  
 SOS Deiak 088

**ZE BARRI?**

**Argitaratzailea:**

**AXTROKI KULTUR ELKARTEA**

**Erredakzio kontseilua:** Joseba Rielo, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano.

**Kolaboratzailea:** Iñaki Agiriano.

**Zuzentzaileak:** M.ª Carmen Arrieta, M.ª Jesus Umerez, Karnele Agirregabiria.

**Inprimategia:** Eguzkigraf. Koop. Elk.

**Tirada:** 1.500 ale

“ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin”

**JOSU AZKARATE KAÑAMAKE**

AEKko ikaslea

**1- Noiz hasi zara euskera ikasten?**

Pasa den urtean hasi nintzen.

**2- Lehenengo urratsetik?**

Ez, 3ren urratsatik hasi nintzen, zerbait banekien.

**3- Eta orain zein urratsetan zabilta?**

6.en urratsean nabil.

**4- 3 urrats urte batean ez al dira**

asko?

Bai, normalean 2 egiten dira baina oporretan egon naiz barnetegi batean.

**5- Non egon zara?**

Iturenen (Nafarroa).

**6- Zer moduz barnetegian?**

Oso ondo, larreiko ondo, datorren urtean berriro joango naiz.

**7- Zenbat denbora egon zara?**

2 aste egon naiz, egunero 6 ordu eta aste bukaeran irteerak herria ezagutzeko.

**8- Zertan erabiltzen duzu aisialdia?**

Lagunekin irten, irakurri (oraindik erderaz), ortuan egoten naiz, neguan eskiatzera.

**9- Zer aldatuko zenuke alkatea bazina?**

Udaletzeko funtzionamientua aldatuko nuke, udaketxean bakarrik trabakipintzen dute, den dena ordindu behar duzu eta abar.

**10- Zer iruditzen zaizu ZE BARRI aldizkaria?**

Oso ondo dago baina hobeto egongo zen Eskoriatzako jendeak lagunduko balu.



Cuenta Joven  
de Caja Laboral  
El servicio  
más completo.

**Euskadiko Kutxaren  
Kontu Gaztea.  
Zerbitzuetan  
osatuena.**

  
**CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA**



  
**LENIZ**  
ESKORIATZA

Aingeru Ibiltokia, z/g.  
Tfnoa.: 715061

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

**REPARACIONES LENIZ, C.B.**

## Ikazkinak gure basuetan



**J**ausoro baserriko Luis Mari eta Gerardo negurako ikatza egiten ibili dira Lizargateko txabolan hamabost egunez. Haizea aldakor ibili dela eta ez dute bieleku makala eduki txondorra zainketan, baina hartutako lanak bere ordaina izaten duenez, negurik gorriena etorrita be hauek ezkatza epel-epel izango dute.

Garai batean, udazken aldean makina bat baserritar ibiltzen zen ikatza ateratzen gure basuetan. Oraindik zenbait baso malkarretan txondorren arrastuak badauden arren, ikazgintza aspaldi galdu zen hemen Leintz bailaran, zaharrek ikatza egiten jakinagatik belaunaldi gaztiekin ikasi ez dugulako. Jausoroko Luis Marik, txondorra egin eta handik ikatza nola ateratzen den jakiteko gogoia zuela eta, dakienak ez dakienari erakutsiz, lehengo denboretan letxe aritu ziren tio lobak ikatza ateratzen. Eta baita ofizioa ondo ikasi ere! Hamabost egun eta gero gurdada bat ikatz atera baitzuten txondorretik.

Txondorra egin eta hura zainketan egotea ordea ez da lan makala. Luis Mari eta Gerardok eginiko txondorrek 215zm-ko altuera zeukan eta egur piloa ibili behar izan zuten halako altuera hartzeko. Gainaldea berriz, lurrez estali zuten eta hau ongi zaindu beharra zeukaten haize gaiztoak altxatuko ez bazuen. Osterantzean, suak kanpora irten eta kalte galanta egin zezakeen txondor inguruetan.

Behin txondor barruko egurra errez, hurrengo lana txondorra freskaketan jartzea izan zen, gero apurka-apurka ikatza ateratzen joateko. Guztira

70 bat zaku bete omen zituzten, beraz, badaukate burututako lanaz pozik egoteko motiborik. Gainera aipatu digute, txondorra zainketan egotea ez zela horrenbestearainoko bielekua izan eta lehengo denborak gogoratuz oso gustora aritu direla "Tasio"n antzeran ikazginen.

Lizargaten pasa zituzten hamabost egun horietan kuriositateak bultzatuta edo, jende ugari hurbildu zitzaizen eskoriatzar hauei ikatza nola egiten zuten ikustera. Ze barri?kuok ere sekula ikusi gabekuak izanik, aukera izan genuen gure arbasoen ofizio hau gertutik ezagutzeko.

Baina aipatu behar udazken honetan ez direla Luis Mari eta Gerardo izen ikazginen jardun duten bakarrak. Degurixa aldean be beste txondor bat egon da ixotuta urriko lehen asteetan eta bertan, Muxibar baserriko aita semeak ibili omen dira ikatza ateratzen. Guzti honekin badaukagu halako errezelu bat, ikazginen aritzeko afizio hori ez ote den berpiztuko. Eta auskalo zeinek daki, akaso aurki udazkeneko ikusiko ditugu berriro hemengo basuek hostobako arbolaren artetik keez ageri direla.



# AUTOPISTAREN NONDIK NORAKOA



Urriaren 15an bukatu da Eibar-Gasteiz autopistaren proiektuari alegazioak egiteko epea. Hau dela eta udaletxera jo dugu honen berri zehatzago izatekotan.

Udaletxean aurkezturiko alegazioak hauek izan dira:

**AURKEZLEA:** Udaletxea eta IU/EB  
**EMAITZA:** Guztiek onartua.  
**PROPOSAMENA:** Autopista herritik pasatzen den puntu guztietan, bertatik urruntzea.  
**ARRAZOIAK:** Sta Ana eta S.Pedro auzoetatik 50m.tara pasatzen denez, honek ekarriko duen zarata eta traba dela eta.

**AURKEZLEA:** H.B.  
**EMAITZA:** Ez da onartu. HB eta IU alde, elizateak abstenitu eta EA,PNV eta PSOE aurka.  
**PROPOSAMENA:** Autopista hau egin beharrean dagoen bidea hobetuz autobidea eraikitzea.  
**ARRAZOIAK:** Autopistaren kostu handia.  
 Herriak ez du irabazten.  
 Ez du bailarako trafikoa konponduko.  
 Gaur egungo bidea konpontzeko ez da dirurik geldituko.

## TOKI ALAI

Taberna  
Tfnoa.: 714729

KARAJILOETAN  
ESPEZIALIZATUA



**DORLETA**

Aranburuzabala, 22 -bajo  
Tfnoa.: 71 51 20

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

**kutxa** fundazioa  
fundación

**AURKEZLEA:** I.U./E.B.  
**EMAITZA:** Ez da onartu. IU eta HB bakarrik alde.  
**PROPOSAMENA:** S. Bernabeko sarrera, dagoen lekutik kentzea.  
**ARRAZOIAK:** Puntu horretan sarrera bat eginez gero, Eskoriatzak etxeak egiteko daukan leku bakarra hipotekatuko litzateke, gaur egun leku eraikigarri bakarra delako hori.

**AURKEZLEA:** EAJ/PNV  
**EMAITZA:** Guztiek onartu dute.  
**PROPOSAMENA:** S. Bernabeko sarrera Ederlan aldera eraman.  
**ARRAZOIAK:** Puntu horretan sarrera bat eginez gero, Eskoriatzak etxeak egiteko daukan leku bakarra hipotekatuko litzateke, gaur egun leku eraikigarri bakarra delako hori.

**AURKEZLEA:** Eskoriatzako Elizateen Elkarte  
**EMAITZA:** Guztiek onartu dute.  
**PROPOSAMENA:** Nekazal bideetan hainbat aldaketa.  
 Zarimuzko tunela luzatzea.  
 Expropiatuko diren lurak orduan berkalifikatzea.  
 Obrek dirauten artean auzoetarako bidea erraztea.  
 Auzoek jasan behar duten kaltea dela eta lokal, zerbitzu publiko, frontoi etabarrekin konpentsatzea.

**AURKEZLEA:** Marin, Zarimutz eta Mazmela aldeko baserritarrak  
**EMAITZA:** Ez da onartu  
**PROPOSAMENA:** Autopista bailararen beste aldetik pasa dadila. (Dorleta alternatiba)  
**ARRAZOIAK:** Dorleta eta Zarimutz alternatiben arteko balorazioan behar baino alde haundiagoa dago eta ez da hain garbia Dorleta aldekoak kalte haundiagoa jasango lukeenik.

**AURKEZLEA:** Agustin Agiriano Arenaza  
**EMAITZA:** Ez da onartu.  
**PROPOSAMENA:** S. Bernabeko sarrera, dagoen lekutik kentzea. Aukeran mazmela aldetik sarrera egitea.  
**ARRAZOIAK:** Beharrezko izan ez eta herriarentzako kaltegarria delako  
 Epeleko sarrera nahikoa da eskoriatzarrondako.  
 Eskoriatzako eraikuntza plana ostopatuko luke alde horretan.


**AURKEZLEA:** Javier Villar  
**EMAITZA:** Guztiek onartu dute  
**PROPOSAMENA:** Zarimutzetik zatiari dagokionez aurreproiektura bueltatzeko aukera aztertzea, eta ezinezkoa balitz, tunela Zarimutzko pasabideraino luzatzea.  
**ARRAZOIAK:** Baserritik bizi ahal izateko Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin egindako inbertsioei kalte handia egiten dielako.

Proiektua orain dagoen moduan autopista Eskoriatzan zehar 50 bat metrotara pasatzen da gutxi gora-behera. Okina baserri gaineratik eta Erkotx azpiik (Aldai azpitik) igarotzen da. Autopistak izango lukeen neurria kontutan edukita, izugarrizko inpaktua egingo ei du gure herrian.

Onartu diren alegazioan aurrera egiten badute gutxi gora-behera Aldai gaineratik eta Apotzaga azpitik pasatuko litzateke.

Beraz autopista herritik ahalik eta hurrunen pasatzea garrantzitsua da benetan, kontutan hartzen badugu bariantea alde batean eta autopista bestean, herria itxita gelditu behar dela.

- Udalak herri erdigunerako zeukan plana beraztertu du lehendik zegoena hainbat konstruktorekin egon eta gero bideragarria ez dela iritzi eta gero. Plan berria publikora zabalik dago orain eta nahi duenak Udaletxean eska dezake informazioa. Esan digutenez, publikora zabalik egon eta gero, udalak onartu beharko du eta ondoren alegazioak egiteko epe bat egongo da. Adibide moduan plan berrian Egokien elkarteak desagertzen da eta Bolibarko bidea ere beheगतिक दार (plaza alderगतिक).



- Kiroldegi berrirako lanpostu bat atera du udalak, gaur egun dagoen arduraduna euskaltzaira doan orduetan bere lekuan egoteko. Argibide gehiago Udaletxean.

## EUSKARAREN ASTEA

Urtero egiten den moduan Udaletxetik antolatzen den Udazken Kultural barruan Axtroki Kultur Elkarteak Euskararen Astea antolatuko du. Azaroaren 25etik 29ra bitartean ospatuko da eta egongo diren ekintzak hauexek izango dira:

- Azaroak 25 (asteartea)** 7'tan Kultur Etxean 2. pisuan.  
Mikel Diaz de Gereñuk Nepalen zehar egindako trekinari buruzko diapositiba emanaldia eskainiko digu.
- Azaroak 27 (osteguna).** 7'tan Kultur Etxeako 2. pisuan  
ipuin kontaketa Jose M<sup>a</sup> Karrerekin
- Azaroak 29 larunbata:** 5'etan pilotalekuan - Sarrera: 200 pzta.  
Takolo Pirrutx eta Porrotx  
8'etan Gardokirekin txikiteoa  
9'etan Toki Alai tabernan  
Txiste Afaria Gardokiren laguntzarekin.

**BEKAK**

- Eusko Jaurlaritzak giza eskubideen alorrean ikerketa bekak kaleratu du lizentziatuei zuzendua. Epea: azaroak 4.
- Lan istripuei buruz ikerkuntzak eta espezializaziorako bekak deitu ditu "Mapfre" Fundazioak. Epea: azaroak 15.
- "Bankaja Fundazioak" eta CSICek, agrokimika, elikaduraren teknologia, neurozientzia, biomedikuntza, desertifikazioa, akuikultura, biologia, kimika... alorretan. Epea: azaroak 18.

**LANA**

- Bergarako Udalak, kimiko bat eta zoolo- go bat behar dute. Epea: azaroak 18.
- Burlatako musika eskolak bi irakasle lanpostu deitu ditu: armonia eta biolont- xelo. Epea: azaroak 5.
- Ansoaingo Udalak lorezain bat behar du. Epea: azaroak 13.
- Nafarroako hainbat herritan administra- ri laguntzaileak behar dituzte.
- Etxarri Aranazen (egun erdirako). Epea: azaroak 15.
- Huarteko Udalerako (egun erdirako). Epea: azaroak 17.
- Villafrancako Udalerako epea: azaroak 20.
- Noaineko (Elorzgo Arana) Udalerako: azaroak 20.
- Doneztebe Udalerako epea: azaroak 20.
- Noaingo Udalerako lorezain bat behar dute. Epea: EAOn argitaratu zain.
- Gipuzkoako Foru Aldundirako 12 suhilt- zaile behar dira. Epea: EAOn argitaratu zain.
- Ordiziako Udalak, ATS eta gizarte eta kultura animatzailea. Epea: EAOn argita- ratu zain.
- Sestaoko Udalerako, euskera irakasle laguntzailea eta liburutegiko laguntzailea. Epea: EAOn argitaratu zain.
- Barakaldoko Udalak, lanpostu batzu bete nahi ditu: administrari orokorreko teknikari bat, administrari laguntzaile bat, klarinete irakasle bat, graduatu sozial bat, arkitektu tekniko bat, artxibo eta bibliote- ketako hiru laguntzaile. Epea: EAOn argi- taratu zain.

**AZOKA:**

- Renault 5 (SS-P)-a salgai. Deitu telefono hauetara: 779330-798135
- Irailtik aurrera neska bat pentsio osoan hatuko duen familia behar da. Ikaslea 797473

**IKASTAROKAK**

- 3. adinerako animazio ikastaroa. Langabezia (9 hilabeteko antzina- tasuna) dauden 18 urtetik gorako emakumei zuzendua. Eibarren, urritik abendura. Matrikula doan eta ikastaroa amaitzean, lan egiteko aukera.
- Aisialdi Eskolek antolatutako ikas- taroei buruzko informazioa Arrasateko Gazte Bulegoan.

**IKASTAROA GAZTEAK**

- Perkusio tailerra, Iñaki Bruñaren eskutik. Hastapena eta sakontze mailak. Erritmo ezberdinak. Astelehenetan, 6etatik 9etara. Informazio gehiago Arrasateko Gazte Bulegoan.
- Dantza garaikidea: interesatuta bazaude, eman izena Arrasateko Gazte Bulegoan. Oraindik ez da ezer antolatu, baina jakin nahi dugu ea nahiko jende dagoen ikastaro bat montatzeko.

**LEHIAKETAK**

- Lehioako Udalak, argazkigintza, diapositiba eta bideo lehiaketa anto- latu du. Epea: azaroak 7.
- Barañaingo Udalak, IX. argazki lehia- keta antolatu du. Epea: azaroak 11.
- Arrigorriagako Udalararen X. Argazki Lehiaketa antolatu da. Epea: azaroak 28.
- "Pasaia Hiria" XI. Olerki Saria, 15 urtetik gorakoei zuzendua. Hizkuntza eta gaia libre. Epea: abenduak 21.

**MAKETA LEHIAKETAK**

- Gaztemania maketa lehiaketa, Diputazioak antolatua. Gipuzkoako musika taldeei zuzendua. Aukeratutako maketekin diska bat grabatuko da (talde bakoitzetik abesti bat). Epea: azaroak 25.
- Bilboko pop-rock lehiaketa. Sariak: CD bat grabatzea eta 300.000-150.000 PTA bitarteko lau sari, eta 100.000 PTAko 5 akzesit. Epea: aben- duak 31.

**JAIOTZAK**

- IKER MEDIAVILLA GURUCETA, 1997ko irailaren 24an.
- UNAI JURADO NAVAS, 1997ko irailaren 30an.
- BITTOR BARANDIARAN ARRIETA, 1997ko urriaren 17an.
- ANDER MARCOS JORGE, 1997ko urriaren 20an.

**LIBURU GOMENDIOA.****SARA IZENENKO GIZONA**

Bernardo Atxaga.- Pamiela (Tamaina ttikia)


Lehen gerrate karlistan kokatzen du Atxagak istorio hau. Bertan, Martin Saldias, Sara goitizenez, Zumalakarregi jeneralaren alde egi- ten du beste bandoan zelatari lana eginez.

Historiak, gerrako giroa eta beldurrak, bizipenak, espioitza, mesfidantzak, traizioak,... kontatzen dizkigu. Intriga istorioa da, baina narrazioaren muina pertsonaiaren deseingainu ideologi- koa da.

Gerraren giro konplexua, hau da, jeneralaren kanpamenduko egunero- ko bizitza (txantxak, jolasak, jator- duak, ...) eta pertsonaiak eta haien sentimenduak oso ondo deskribaturik daude.

Liburua oso ondo eta samur irakurt- zen da. Guztiz murgilduko zaitu bai giroan, baita Sararen esperientzi eta bizipenetan ere.

Gazteleraz, Un espía llamado Sara, Acento argitaletxeak kaleraturik ere badago.

**EZKONTZAK**

- Mariano Fernandez Blazquez eta Maria Luisa Garcia Gonzalez 1997ko urriaren 18an San Pedro parrokian.



40 bat urte izango ditu honako argazki honek. Argazkian Esteban Eskibel, Julian Ojanguren, Julian Zubia eta Pantaleon Izurrategi ageri dira. Ez daukate usotan joateko itxura haundirik, baina posea bai, posea telebistako "bakeroek" baino txukunagoa.

## HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

### ESKO Sport



txandalak  
zapatilak  
mendiko botak  
aerobic  
futbola  
txirrindua

Intxaurtxueta 5  
20540 Eskoriatza  
Tel. 71 52 96



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Zuri  
Garbiketak

Tfnoa-Faxa: 714845  
ESKORIATZA

## URRESTILLA

TABERNA

Tfnoa.: 714809

Giro ona berandurarte